



REAS
EUSKADI
ekonomia alternatibo
eta solidarioa



ekosolfem
REAS EUSKADI

Denon bizitzak erdigunean



@lilialdai

Bizitza erdigunean jartzea gero eta mainstream-lelo handiagoa bihurtu da. Edukiz betetzea dagokigu, eta bizitza guztiak beren aniztasunean sostengatzen dituen ekonomia ehuntzeko irrika (eta premia) horiei gorpuztea ematea. Horrek esan nahi du, alde batetik, erabaki politikoak, sozialak eta ekonomikoak pertsonen bizitzan duten eraginaren arabera harztea, eta ez, beste prozesu ekonomiko batzuetan duten eraginaren arabera, batzuetan interes orokorretik, guztion onuratik edo bizitzaren iraunkortasunetik kanpo. Bestalde, ugalketa-eremuari baliabideak ematea ere esan nahi du, populazioa ugaltzen den eremuari, bizitza sostengatzen duen eremuari.

Bizitza guztiek zaintzak behar dituzte, finituak, kalteberak eta eko-interdependenteak baitira. Hala ere, sistema kapitalista neoliberalari buruan sartu zaio, eta ia lortu du, ahalguztidunak eta buruaskiak garena sinestarazten. Horrela, kapitalismo

neoliberal, heteropatriarkal eta kolonialaren esparruan, ezinbesteko beharrian, eskubide eta erantzukizun kolektibo gisa hartu beharrean, zaintzak “huts egite” edo “defizit” gisa ikusi dira, emakumeen esku utziz, batez ere pobreenen esku, bizirauteko eta bizitza zaintzeko erantzukizuna, itxuraz autonomia den mundu publiko baten fantasia garatuz, aukeratzeko askatasunaren premisa faltsuan oinarrituta.

Zainketek gizartean duten zentraltasuna onartzeak eta haien balioa handitzeak esan nahi du agerian jarri behar dela gaur egungo antolakuntzak nola sortzen duen gizarte-bazterketako arriskua zaintza ematen duten pertsonen artean (berdin dio modu ordainduan egiten duten ala ez). Oro har, zaintzaileek osasun-egoera okerragoari, denbora pertsonal txikiagoari, isolamendu sozial handiagoari, proiektu propioak garatzeko gaitasun txikiagoari eta lan-

baldintza oso prekarioei egin behar izaten diete aurre, eta horrek, askotan, pentsio baxuagoak eta egoera ahulagoak eragiten ditu adin aurreratueta iristean. Hau da, **zainketetarako sarbidea bermatuta dagoenean, askotan, zaintzaileen eskubideen kontura dela esan nahi du.**

Ordaindutako sektorearen prekarietateak, bereziki, eskubideetan eta lan-baldintzen erregulazioan gabezia handiak dituzten emakume etorkinei eragiten die, eta, besteak beste, Atzerriartasun Legeak dakarren arrazismo instituzionalari aurre egiten dio. Lege horrek bi urtez modu irregularrean bizitza eskatzen die etorkinei, baina lan egiteko eta oinarritzko eskubideak eskuratzeko aukera ukatzen die, gizarte-bazterkerian bizitzera behartuz eta, horrela, **sistema arrazista, klasista eta matxista** sendotuz.

Feministok badakigu finantza-krisialdietan adi egon behar dugula, askotan zerbitzu publikoak nabarmen murrizteko aitzakia gisa erabiltzen baitira, eta horrek, alde batetik, emakumeek etxeko lanetan eta ordaindu gabeko zaintzan ematen dituzten orduen kopurua handitzen du, eta, bestetik, negozio-aukera bat sortzen laguntzen du, irabazi-asmoaren mende dauden enpresa handientzat giza premia saihestezin hori kudeatzen duena, etekinak ustiatzeari eta maximizatzeari dagokionez.

Euskal Herriko mugimendu feministaren aldarrikapenarekin bat egin nahi dugu, **sistema publiko, integral, unibertsal eta doakoaren alde, zaintzarako eskubide kolektibo baten alde eta guztiontzako kalitatezko azpiegitura publiko batzuen alde** egingo duena, emakumeen lan eta bizi baldintzak hobetuz eta zaintza beharrak etxetik/banakakotik publiko/kolektibora eramanez.

REAS Euskadik gure oinarri soziala gonbidatu nahi du Euskal Herriko mugimendu feministak 8M honetarako antolatu dituen jardueretan parte hartzera eta zainketa-ereduaren beharrezko trantsizio hori sustatuko duten alternatiba ekonomiko, sozial eta kulturalak eraikitzen jarraitzera.

BAIONA. 15:00 Merkatu Plaza
BILBO. 19:30 Jesusen Bihotza
DONOSTIA. 18:30 Antiguoko tunela
GASTEIZ. 19:00 San Anton Plaza
IRUÑEA. 20:00 Antoniutti



REAS
EUSKADI
ekonomia alternatibo
eta solidarioa



ekosolfem
REAS EUSKADI

Euskal Herriko Mugimendu Feminista

martxoak 8 de marzo ²⁰²³

**mobi
liza
zioak:**

IRUÑEA / 20:00 Antoniutti
GASTEIZ / 19:00 San Anton
BAIONA / 15:00 Merkatu Plazatik
DONOSTIA / 18:30 Antiguoko tunela
BILBO / 19:30 Jesusen Bihotza
Mobilizazio gehiago herri eta auzoetan.

